

Eta txoritxoak habia hustu zuen

Agur esateko momentua iristen ari zaie EITBn urtetan aritu diren hainbat profesionali. Hedabide publikoak azken hamarkadan izan duen kontratazio politikaren “albo-kalte” bihurtu dira, eta euren protestek markatu dute EAEko komunikazio talde nagusiaren azken urtea. Zerk eragin du tamaina horretako korapiloa? Eta, nola geratuko da EITB?

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

GOGORRA IZAN DA amaitzen ari den ikasturte hau EITBn. Udako beroarekin batera hasi dira arintzen euskal irrati-telebista publikoko kateen programazioak baina beste arintze batzuek, pertsonalekoek, eman dute zeresan handiagoa kurtso osoan: hedabideko irrati-tan martxan dago Lan Deialdi Publikoa eta horrekin batera, orain arte eduki duten lanpostua galduko dute hainbat profesionalak.

Izen ezagunak daude tartean, urte askoan EITBko irrati-tan lan egin izan duten beterranoak; baita kazetari gazteagoak ere: 30 urteren bueltan dabilzanetatik 53 dituztenetaraino kaltetu ditu pertsonala doitzeko hartutako erabakiak.

Maiatzaren bukaeran komunikatu zizkieten lehenbiziko langileei kaleratzeak eta ekainean utzi zuten EITBren egoitza. 29 lagun lehen kolpe horretan. Beste sei, hilabete berean. Eta tantaka-tantaka beste hainbaten mikrofonoak itzaliko dira uztailean, abuztuan eta irailean. Azkenekoek ez dakite oraindik noiz utzi beharko duten lana, baina joan beharko dutela bai. Duela 15 hilabetetik hartuta dago erabakia, baina ia urtebete pasa da kaleratze-data komunikatu dieten arte.

Bitarte horretan grebak, mobilizazioak eta mota askotako protestak egin dituzte. EAEko Legebiltzarrean Maite Iturbe EITBko zuzendariaren dimisioa ere eztabaidatu zen. Eta gaia Hego Euskal Herriko agenda mediatikoan sartu da. Seinale txarra inondik ere, hedabideak albisteak emateko baitaude, ez albiste izateko.

Autonomo faltsuen kontratuak

Historia honen protagonistak 79 aurpegi eta ahots dira: Idoia, Iratxe, Iñaki, Haritz,

Bego, Mikel... “Zuen bozketa, irratiaren hilketa” oihukatu zuten haserre haietako batzuek EITBren egoitza nagusian 2014ko apirilaren amaieran, administrazio kontseiluko ordezkariak Lan Deialdi Publikoa onartu zuen bileratik irten zirenean. Organo horretako EAJko sei ordezkariak, EH Bilduko laurak eta LABeko, Eusko Ikaskuntzako eta Euskaltzaindiko ordezkari banak bozkatu zuten alde. PSE-EEko eta Euskadiko Kontsumitzaileen Elkarteak ordezkariak abstenitzea erabaki zuten eta PPko bi kideek baino ez zioten ezezkoa eman.

Prozesua ofizialki abian jarrita, lehenagotik entzuten hasia zen eztabaidak protagonismoa hartu zuen: Lan Deialdi Publikoa ala izen horrekin mozorrotutako Enplegu Erregulazio Espedientea? Lanpostuak desegiteko ala kalitatezko

enpleguak sortzeko izango da baliagarria abian jarri den prozesua? 2015eko udara iritsita eztabaida ez da itxi, zenbat buru, hainbat aburu.

Loreto Larunbe eta Bego Yebra dira lanpostua galduko duten profesionaletako bi eta ESK sindikatuaren delegatu gisa, kaleratzeen aurka oso pertsona aktiboak izan dira. Egoera honek eragin dien ezinegona deskribatu dute beraiekin elkarriketa hasi eta berehala. “Imajina ezazu hemen egotea eta jakitea datorren astean kalera joango direla zure ondoan daukazun langile batzuk. Eta hala ere, egin ahalegina zuzenean ez dadin nabari-

Maiatzaren bukaeran komunikatu zizkieten EITBko lehenbiziko langileei kaleratzeak eta ekainean utzi zuten lanpostua

ESK sindikatuak deituta gosari-protesta egin zuten maiatzaren 25ean, EITBko irrati-tatik kaleratuak izango diren langileek. Mobilizazio asko egin dituzte azken urtean.

zeu zara eitb eres ta

Leire Natara

Rebeka

Edurne

eitb



Hizkuntza gaitasuna liskar iturri?

EITBko IRRATIETAKO Lan Deialdi Publikoari buruz argitaratu diren albisteetan maiz agertu da hizkuntza gaitasunaren gaia, eskakizun polemiko gisa. Langile kaleratuak alde egin duen ESK sindikatuko bi delegatuak eta deialdia babestu duen LAB sindikatuko ordezkariaren iritzia jaso dugu puntu zehatz horren inguruan.

Loreto Larunbe, Bego Yebra (ESK): “Ez daukagu problemarik euskararekin, alderantziz. Gehienok ikasi dugu. Guretzat gogorrena izan da arauak aldatu dituztela

guretzako. Zergatik? Justu-justu gu kalera botatzeko. Egun batetik bestera esan dute: ‘Zuk erdaraz egiten duzuna, hemendik aurrera euskaraz egingo duzu’. Oso zaila da guretzat momentu honetan, baina ikasten ari gara, nola ez. Guk ez daukagu arazorik horregaz, gogorrena hori izan da. Hemen lanpostuetarako deialdiak launaka deitu izan dira eta bat-batean 49 egiten dituztenean, hizkuntza profila ez dakit noraino igo dute. Gainera, Euskadi Irratiko langile asko ere joango dira kalera, beraz arazoa ez da euskara”.

Jon Otegi (LAB): “Hasiera-hasieratik erabili dute batzuek hizkuntza eskakizuna *excusatio non petita* gisa. Guretzat ezinbesteko baldintza zen hau onartzeko eta batzuek hartu zuten gatazkarako gai gisa. Onartzen dugu hainbat jende egin duela saiakera urtetan, baina gehienek ez. Parlamentuan azalpenak ematen egon ginenean ere esan genuen, nola egon diren fermazio eskaera askoz gehiago ingeleserako euskararako baino. Nahiko harrigarria da. Guk ez dugu euskararen gaia erabili inor jartzeko edo kentzeko, oinarritzko printzipio bezala baizik”.

tu. Beste lan bat egiten baduzu desberdina da, hemen egoera horretan egonda ere, bi-hiru orduz hitz egin behar duzu, irribarre egin... Momentu honetan lur jota gaude”.

Kontua puntu honetara nola iritsi den galdetzen hasita, 2003. urtea seinalatzen dute iturri guztiek. LAB sindikatuko Jon Otegi azaldu duenez, Andoni Ortuzar artean EITBko buru zenean gertatutako lege-aldaketa batean dago auziaren iturburua: “Behin-behineko kontratuarekin zeuden langileak finko bihurtzera derrigortu zituen lege berriak, baina orduko zuzendaritzari bururatu zitzaion langile horiei merkataritza-kontratuak egitea, autonomo bihurtzea alegia”. Eta baldintza horietan jardun zuten, urte batzuk geroago Gizarte Segurantzaren ikuskariek lupa EITBn jarri zuten arte. “Sekulako *pufoa*” aurkitu zutela dio Otegi, “langile pila bat autonomo faltsu gisa ari ziren lanean eta gizarte segurantzari kontratazio horiengatik hiru milioi euro zor zitzaizkion”.

Irtenbideak bai, soluziorik ez

“Orduan erregularizatu gintuzten, 2010etik hona kontratu mugagabea izan dugu”, azaldu dute Larunbek eta Yebrak. “Baina” batekin orde: “mugagabe ez-finko” motako kontratuak egin zizkieten ordura arte autonomo zirenei eta, beraz, ez zen beraien egoera erabat argi geratu. “Demanda bat daukagu jarrita: nahi dugu epaitegiek esan dezaten zer garen, mugagabe ez-finkoak, mugagabeak...”.

LABeko Otegi uste du bi errealtate nahasten ari direla irratietako langileen gatazkan. Batetik, lan-zuzenbidea; eta bestetik enpresa publikoetara lanera sartzeko eskatzen diren printzipioak. “Guk beti defendatu

dugu langileek postu finkoa eskuratzeko berdintasun, gaitasun eta meritu printzipioak bete behar direla. Zuzendaritzei hori eskatu genien, bai Ortuzarren garaian, baita Surio-renean ere. Baita hori eskaintza publiko baten bidez konpondu behar zela ere”.

Horren orde, behin-behineko irtenbideak bilatu zizkieten egoerari, PSE Jaurilaritzan izan zen agintaldian erabakia atzeratu egin zen eta Maite Iturbek EITBren lema hartu zuenerako langile askok ibilbide bat egin zuten. “Errua ez da langileena, noski”, dio Otegi. “Zuk bat-batean kontratu mugagabe batekin egiten baduzu topo, horren ilusio faltsua sortu dizunak du ardura”. Baina gaineratu du egoera horrek blokatu egin zuela EITBko lan poltsa publikoa, deialditik pasa gabe lanean hasi zirenek bete zituztelako lanpostuak.

Zergatik ez zen lehenago deialdi publikorik egin, arazo handiak ekarri dituzten kontratuon aldeko hautuaren orde? EITBko zuzendaritzan urte asko daramatzan kide batek telefonoaren bestaldetik azaldu duenaren arabera, plantilla finkoa erabakitzea Eusko Legebiltzarri dagokio eta 2000. urtetik 2009ra bitartean ordezkartza zeukaten alderdiek ez zuten halarik agindu —deialdi txikiren bat gorabehera—. Kontratazioekin izandako arazoak lan arloko lege aldaketan erruz gertatu direla defendatu du: “Problema hau ez zen inoiz gertatuko legea egonkorra izan balitz, langileen estatutuan egin den erreforma bakoitzak lege barruan zeuden gauza batzuk mugan edo zuzenean legez kanpo jarri ditu”.

Murritzeta giroa

Irratiaren eguneroko martxari zein neurritan eragin ote dion galdetu diegu Larunberi eta Yebrari. “Langile asko joan dira eta geratu



Maite Iturbe EITBko zuzendaria aurtengo otsailean Eusko Legebiltzarrean. Urte liskartsua izan den seinale, EAEko parlamentuan bere dimisioa eztabaidatu zen, PSE-EEk eta EH Bilduk bultzatuta.

garenak jarraitzen dugu, baina jende gutxiagorekin. Gaua galdu dugu, uhin ertaina itxi zuten, asteburuetan ia saio guztiak errepikapenak dira... Zer egingo dugu, buletinak beste-rik ez? Hori izango da gure irratik publikoa?”.

Egoera estua denik ez du ukatzen zuzendaritzak, baina EITBren azken urteetako gorabeheren barruan kokatu du oraingo erabakia. Gogoratu du 2010ean autonomoak mugagabe bihurtzearekin irratietako langile kopurua %50 hazi zela. “Hazkunde hori jasangaitza da: 2009an izan dugu aurrekontu handiena, 2010ean jaisten hasi zen eta geroztik beherantz doa”.

Irratiak batez ere pertsonal gastuak dituela seinaltatu du, baita 2013rako EITBren aurre-

kontua ia heren bat jaitsi zela ere, 2009arekin alderatuz. Horrek etxe barruko adar guztietan murrizketak eragin zituen, “eta irratia ezin zuen bere aurrekontua jaitsi, gehiena soldata zelako. EITB taldeko sozietateak ari ziren esfortzua bere proportzioaren arabera egiten, baina irratiek ezin”.

Alternatibak badirela uste du, dena den, LABeko ordezkariak. “Helburua izan behar-ko litzateke Jaurkitzak komunikabide publikoari finantzazio nahikoa ematea, eta hedaturaz guztiei; baina eman zuen aizkorakada horretan atzera egin behar du. Dirua badago, hainbat gauzatan gastatzen da, AHTn adibidez; aukera badago kalitateko komunikabide publikoa egiteko”.




EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu
pertsonalizatueta adituak

Kale Nagusia, 16
San Jeronimo, 14
Portu, 14

20003 Donostia · Euskal Herria

© 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com



Zuzendaritzaren eredua: azpikontratak irratian

LAN EGITEKO molde desberdinak izan dituzte historikoki EITBko irratiek eta telebistek. Irratietan hizkuntza bakoitzean ekipo bana aritu izan da eta telebistetan aldiz, kazetari berdinek egin izan dute lan euskaraz eta gaztelaniaz. Gainera, etxeko profesionalen pisua informatiboetan sumatu izan da nagusiki telebistan. Bestelako programak, entretenimendua ardatz dutenak, azpikontratatu diren ikus-entzunezko enpresen esku utzi izan dira. EITBren irradi

eskaintzan ere telebistako eredua martxan jartzeko asmoa ez da berria zuzendaritzarentzat eta langileen kontratazio-arazoak hasi zirenean soluzio gisa eskaini zitzaizen sindikatuari –baita hauek baztertu ere–.

Gaur egun aukera hori gauzatzeari zail ikusten duen arren, EITBko zuzendaritzak izan ditzakeen onurak azpimarratu ditu. “Irrati koloretsuagoa” egiteko aukera gisa ikusten du erreportaje hau osatzeko gure galderei eran-

tzun dien ordezkariak. “Enpresa publikoa ona da, beharrezkoa, gure kasuan ezinbestekoa, baina egon behar du txertatuta sektore batean. Eta sektore horri jaten eman behar zaio”, adierazi du. “Eta sektore hau ez da eskulangintza, sormena da. Horri utzi behar diozu bere bidea egiten. Entrenimendua eta *showa*, berdina edo telebistan, modari lotua dagoen zerbait da. Eredua hori ikus-entzunezko sektoreak askoz hobeto egiten du”.

Finantzazioa handitzen ez den bitartean zuzendaritzak argi du ordea: zorpetzea eragotzi nahi du kosta ahala kosta. “Zorretan sartu diren irradi-telebista autonomikoek ikusi dugu nola bukatu duten”.

Eta etorriko dena

Pentsa liteke EITBren aurtengo jarduna hainbeste markatu duen problema hemen buka daitekeela. Epaitegiek esango dutenaren zain, kaleratzeen kontra manifestatu diren langileek ez dute momentuz mobilizazio gehiago aurreikusten. “Egin beharrezkoa egin dugu”, esan dute aurrera begirako protestei buruz galdetuta.

Baina irratietan hainbeste kalapita sortu duten kontratu “mugagabe ez-finko” horiek beste zenbait adarretan ere indarrean daude oraindik, besteak beste hedabide publikoaren webguneko langileen artean. Ekainaren 19an iragarri zuen LABek lan hitzarmena lortu dutela atal horretan eta horrek egoera alda dezake edizio digitaleko langileentzat.

EITB sortu zenetik 32 urte pasa direnean, lehenbiziko aldiz erreforma integrala planteatuko da EHUren metodologiari jarraituz

Beste hari mutur batzuk ere geratzen dira: “Jarraitu da kontratazio irregularrak egiten atzamarrarekin zuzendaritza talderako ere”, baieztatu du Otegik. Izen-abizenak jarri dizkio horren arduradunari: Javier Salcedo. “Pertsonal zuzendaria da, Ortuzarrek jarri zuena. Surioaren garaian ere mantendu zen”. Eta LABek haren dimisioa eskatu

zuen otsailean, “bera izan baita kontratazioetan egin diren bidegabekeriaren arduradun zuzena”.

Klima honetan, EITBko plantilla estrukturalari buruzko eztabaidak dirudi hurrengo erronka nagusia. Datorren urtean hasiko da prozesu hori.

Bestalde, zeresana eman dezake Eusko Legebiltzarrean sortuko den batzorde bereziak ere: hedabide publikoa sortu zenetik 32 urte pasa diren honetan, lehenbiziko aldiz erreforma integrala planteatuko da, EHUK proposatuko duen metodologiari jarraituz. Ikusitakoak ikusita, ikamika ia ziurtatua dago. ■



EGUZKI BORDA IDIAZABAL GAZTA ETA ARDI ESNEA

943 354 075 / 660 719 654
EGUZKI BORDA BASERRIA
ERRENTERIA (GIPUZKOA)

